

## "BAI EUSKARARI" KANPAINA IPARRALDEAN

*Donostia, 1979-IX-28*

*P. Xarritton*

1978.eko "Bai Euskarari" kanpaina egin zelarik Hegoaldean, Ipar Euskal Herrian bazterretik egon ginen: Hegoaldearen ikuspegitik prestatua zen kanpaina haste-hastetik eta gero, kanpaina hasi ondoan, nihaur deitu nindutenean, alde batetik berantegi zen orduan, has eta has, edozer egiteko. Bestaldetik ordukotzat "Seaska" taldeak bere kanpaina bete-betean zeraman. Gerorako utzi zuen beraz Euskaltzaindiak jax Iparraldea.

### **Aparailuak**

Aurten, Urtarrilaren 15ean, lehen bilkura bat egin zen, Baionako Museoa egunkarien bitartez dei bat eginik interesatuak zitezken guzietan. 30 bat lagun bildu ginen. Bilbotik etorritako kanpainaren eragileak, Iba-be, Elorriaga, Castañares eta heien lagunak entzun genituen. Bilkuraren ondotik erabaki zen talde eragile tipi baten biltzea, iparraldean euskararen alderat aurki ditezken arrazoinak eta alderdiak ikertzeko eta gero Bilboko taldeari aurkezteko. Bilboko profesionalek eskaintzen ziguten alabaina beren laguntza publizitateari buruz. Bizkitartean ohartu ginen berehala kanpainaren aparailuek bi edo hiru hilabete eskatuko zizkigutela gutienetik eta beraz "Seaska"ren kanpainaren ondotik egin beharko zela aurten ere "Bai Euskarari" kanpaina: Hau da ekaineko hilabetean.

Talde eragileari izena eman genionak sei ginen: R. Kanblong, G. Etxeberry, J. Goyhenetxe, B. Garayart, Ladix L. eta nihaur. Gero R. Kanblong-en orde J. L. Hariñordoki etorri zitzaikun eta urtarriletik martxoraino sei edo zazpi bilkura egin genituen, euskararen egoera soziopsikologikoa ikertzeko gure eskualde hautan. Bilboko taldeari aurkeztu genion gero gure lana.

Apirilean Donostiarat ekarri zizkiguten Bilbotarrek beren proposamenak eta gero proposamen hauk ikertu zituen Baionako Museoa bilkura nagusiak. Azkenik iparraldeko euskaltzainek hartu zituzten erabakiak Belokeko bilkura berezi batean.

Erabaki horien arabera dira hautatuak izan afixen formulak, finkatuak hasierako Hendaia-ko eguna eta amaierako D. Garaziko pesta. Eus-

kaltzainek berek parte hartu dute artikulua prestatuz eta beren izenean eskaerak igorri herrietako auzapez, kontseilari, apezai bai eta diru etxe eta lantegiei. Bestalde Baionatik eginatik kanpainaren koordinaketa, herrialde bakoitzean sort ziteken taldeari utzi zaio, berak, bere gogora eta asmura, bere programa egiteko esku osoa. Azkenik idazkaritzarako, galdatau zaio R. Bachoc jaunari, bere laguntza eman dezaion P. Xarritton ordezkaritari.

## **Kanpaina bera**

Horiek hola, Hendaian hasi zen kanpaina, ekainaren 3 an, lekuko taldeak prestatu egun ederrarekin.

Orduz geroz, nahigabe eta oztopo asko izan du gure kanpainak. Hala nola mugaren iragaiteko, grebak zirela ta, gibelatu baitira hegoaldetik ekarri behar genituen aldizkari, paper eta eranskailuak. Bestalde politika gertakariak sortu dituzten manifestapenek eta eginkizunek militante asko urrundu dituzte gure kanpainatik, bereziki D. Garaziko egunerako.

Ba dira publizitate lan batzu ahulki joan direnak: Irrati, telebista, egunkariak hartu dituzte guhaurk eman solas eta izkribuak, baina beren baitarik ez dute oldar handirik egin. Bereziki gobernuko irrati-telebistek eta *Sud-Ouest* egunkariak. Huni hasteko ez diote euskaldunek zorrik.

Aitor dezagun ere gure banko etxeak orainokoa elkor eta mutu egon direla. Alta bada euskaldun izen asko barne horietan eta denek ere maite dute euskaldunen dirua zaintzea. Bestaldi batez menturaz...

Dena dela erran behar dugu iparralde osoa hunki dela egundaino ez bezala, euskaraz eta erdaraz, eta herrialde batzuk ederki ihardetsi diotela Euskaltzaindiaren deiari. Heletan eta Alduden jende guti bildu bada ere pertzularien entzuteko, Aiherran eta Barkoxen jendalde pollita ba omen zen Lafitte eta Haritschelarri behatzeko. D. Lohitzuneko eskualdea ezpada ere asko harrotu, ez Baiona erdia ere, Getarian, Baiona berrian, Hiri-burun, Hazparne eta Ziberoaldetan pesta bilkura ederrak muntatu dira.

Kanpaina bururatu eta, konduen egiteko ordua etorri denean eta parte hartu dutenei, uztailaren 28 arratsean dei egin diegularik, Senpereko haiztegi itzaltsu batetarat, 50 lagun bildu gara, zikiro baten inguruan. Eta kondu hauk atera ditugu:

## **Kanpainako konduak**

- 2.500 letra igorri dira laguntza eske (60 ek ihardetsi).
- 30.000 astekari atera dira ta hoitarik 100.000 zabaldu.
- 46.000 afixa atera dira ta 20.000 inguru zabaldu.
- 4.000 pasa atorra sartu dira ta 2.000 inguru saldu.
- 20.000 eranskailu sartu dira 10.000 zabaldu.

Materiale hori guzia Hegoaldetik etorria zela jakinez geroz, aitor dezakegu ez ginuela iparraldean, laguntza hori gabe, gure kanpaina egiten ahalko baina erran behar dugu ere, gure ustez, ongi baliatu dugula eskaini diguten lauzka.

<b>Xahupideak</b>	<b>Libera</b>
Moldiztegia .....	3.000
Aduana .....	1.000
Publizitatea .....	2.100
Posta ta telefona .....	3.100
Idazkaritza .....	3.000
Ibilaldi ta gastu .....	3.000
	15.200
<b>Sartzeak</b>	<b>Libera</b>
Hendaia .....	13.000
D. Garazi .....	7.000
Hazparne aldea .....	11.374
Baiona aldea .....	10.525
D. Lohitzune aldea .....	1.165
Diru laguntzak .....	8.000
	51.064

*Garbi konduan (2-IX-79) 36 659,79 libera.*

Bestalde Amikuzen ta Ziberon bildu den dirua zabaldu da herrialde hoitako haurrei eman diren primetan. Ba daude oraino Lapurdi aldean 5 eskola saristatzeko. Sar ditake ere oraino purruxka zerbait hantik edo hementik, baina lodiena hor da.

## **Ondotik**

Aipatu zen Senperen, udazkenari buruz oldar berri ta labur bat egitea ikasturte berriko programak agertuz eta gelditzen den materiala baliatuz. Ikusi behar. Dena dela, orai hemendik hegoaldeko haurridei gure agurra eta esker ona bihurtu behar eta bihotzetik egiten diegu.

Gero iparraldean, Euskaltzaindiak kanpaina horretan bere deia entzunarazi badu, ez du orai berak ixil eta lo egon beharko. Herriari zor dio euskararen alde lan egitea eta eragitea. Bai eta bere lanen berri emaita.